

"Nazioarteak gura duena egiten utzi dio Israeli"

Hawari-Berriozabalgoitia familia palestinar-euskaldunak bere etxeko egongelan hartu du ANBOTO, Hamasen eta Israelen arteko su etena indarrean sartu berritan, eta Donald Trump AEBetako presidente izendatu berritan / 2-3



Bizkaiko sagardo denboraldia Zornotzako Uxarten hasi dute, Iزارo musikari mallabitarra enbaxadore dela / 6

Bizkaiko sagardoaren denboraldi berria Uxarten aurkeztu dute; gaur da lehenengo txotxa



Saharako errefuxiatuen aldeko elikagaien bilketa otsailaren 4tik 16ra izango da / 11



"ASPIRAZIO HANDIAGOA DUZU AURREKONTU HANDIAGOAGAZ"

Gaur 'Rich flu' estreinatuko da Hego Euskal Herriko zinema aretoetan, Galder Gaztelu-urrutia zinegile abadiñarraren azken lana; Durangoko Zugazan emango dute, besteak beste / 17

Gaztelu-urrutia, ezkerrean, Lorraine Braccogaz.

EPK

IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

MATRIKULAZIOA
Otsailaren 3tik 14ra

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraloa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.



MAIZTEGI
Herri Eskola
IURRETA

2-12 urte
HH eta LH

94 681 09 37
idazkaritza@maiztegieskola.com



Juan Orobiogoitia BHI
12-18 urte
DBH eta Batxilergoa

94 428 80 00
015090aa@hezkuntza.net



Hawari-Berriozabalgaitia familia palestinar-euskaldunak bere etxeko egongelan hartu du ANBOTO.

"Palestinara begira jarraitu behar dugu"

HAWARI-BERRIOZABALGOITIA FAMILIA FAMILIA PALESTINAR-EUSKALDUNA

Durango bizi dira eta ez diote begirik kentzen Palestinari. Hamasen eta Israelen arteko su etena indarrean dela eta Trumpek kargua hartu berrikan elkarriketatu ditu ANBOTOK

Ekaitz Herrera PALESTINA

"Ongi etorri gure etxera". Atea zabaltzeagaz batera, Anis Hawari (Palestina, 1950) euskaraz agurtu du kazetari etorri berria. Egongelako epelean jesarri dira familiako kide guztiak: Maria Jesus Berriozabalgaitia garaitarra (ama), Anis Hawari (aita) eta euren hiru alabak: Nadia, Yasmin eta Sara. Telebistan, Donald Trumpen kargu-hartze ekitaldia. Eta mahai gainean baso betena ur, badute zer kontatu eta. Eta halantzik, luze barik hasi dira familiako kideak Palestinaz berbetan.

Hamasen eta Israelen arteko su etena indarrean dago. Zelan baloratzen duzue albistea?

Maria Jesus Berriozabalgaitia: Oraingo, itxaron egin behar dugulakoan nago. Egunak igaro beharko dira su eten hori iraunkorra den ikusteko. Izan ere, han gertatzen dabilena ez sinesteko modukoa da.

Anis Hawari: Alde batetik, pozik gaude, erasoak eten egin dira eta. Bestetik, tristezia ere badugu, oraintxe hasiko gara-eta gerrak eragindako ondorio guztiak ikusten. Adibidez, oraintxe hasiko dira gorpuak hondakinetatik ateratzen.

Nadia Hawari: Su etena denok itxaroten genuen zerbait da, baina berandu dator, askoz lehenago ailegatu zitekeen. Eta dena esaten hasita, askoz hobe halakorik se-

kula hasi izan ez balitz. Nik, adibidez, sorpresa hartu dut: su etena iragarri zutenetik hura indarrean sartu zen arte, areagotu baino ez zituzten egin palestinarren kontrako erasoak, bonbardaketak eta hilketak.

Sara Hawari: Su etena indarrean sartzeagaz batera pozago egongo nintzela uste nuen, baina ez. Ez nago horren pozik.

Nazioarteko adituek diote su etena "hauskorra" izan daitekeela. Bat zatozte horregaz?

N.H.: 75 urte baino gehiago daramatzaguz horrela. Nazioarteko estatuek, orokorrean, gura duena egiten utzi diote Israeli. Baina azken urte honetan aldatu egin da fokua. Orain, Israeliek eginda-

ko ankerkeria eta krudelkeria guztiak ikusi ahal izan ditugu, eta nazioarteko estatuen jarrera agerian geratu da, ez dute Israel geldiarazi gura izan eta.

A.H.: Oraingo su eten honen arazoa da hiru fase dituela, eta lehenengoa baino ez dagoela adostuta. 42 eguneko epea dago, beraz. Bigarren eta hirugarren faseak negoziatu barik daude. Horrek egundoko kezka sorrarazten digu. Historian lehenengoz, genozidio bat ikusi dugu teledibistako pantailan. Ahalik eta herritar zibilik gehien hil dute, eta herrialdea ahalik eta gehien suntsitu. Eta erasoan helburuak ez dira erresistentziako kideak izan, herritar palestinar baino, zibilak. Hau Ameriketako Estatu Batuek administratutako eta Israeliek gauzatutako gerra bat izan da.

Y.H.: Asmo hau dago horren guztia atzean: palestinarren euren lurretik deserrotzea, gure lurrean arrotz sentiaraztea, eta memoria ezabatzea. Izan ere, basakeria honek ez gaitu inora eramane. Planifikatutako zeozeren aurrean gaudela ondorioztatu dezakegu.

Zer deritozue nazioartearen jarriari?

N.H.: Nazioarte oso jarrera epela izan du. Esango nuke benetan mobilizatu direnak herritar arruntak izan direla, gizarte era-

gileak, ikastetxeak eta elkarteak. Boterea dutenek, ardura lekuetan dauzkenek, ez dute ezertxo ere egin, eta orain, halako batean, dena Donald Trumpek konpondu duela dioskue.

A.H.: Hau guzti hau herri palestinarren tinkotasunagaitik, nazioarteko presioagaitik eta Israelen porrotagaitik eten da. Izan ere, Israeliek helburu batzuk izan ditu, baina ez du horiek betetzea lortu. Nire interpretazioa da Israel nondik jarraitu jakin barik geratu dela, eta noraez horren aurrean Trumpek erasoak etetea agindu diola. Azken finean, Trumpek Israel babestu gura izan du haren akatsetatik, ikuspegi estrategikotik gerra galtzen egon da eta. AEBetako arduradun militarrek ere hala adierazi diote. Ez da helburu militarrik egon; zibilak hiltzen baino ez dira egon.

Helburu militarrik egon ez bada, zergaitik dago Palestina jo puntuan?

A.H.: Arrazoiatariko bat bere kokapen geografiko estrategikoa da. Palestinak bitan banatzen du mundu arabiarra. Afrika iparraldeko lur arabiarrek eta Asiako arabiarrek banatzen ditu. Eta,aldi berean, Europa eta Asia banatzen ditu. Gainera, herrialdea oso gertu dago Suezko kanaletik (Egipto), eta jakina da Iraken zein Iranen petrolio baliabideak daukena. Horrenbestez, Ekialde Hurbila kontrolatzen duenak eremu hori guzti hori kontrolatzea lortuko du. Arrazoi horiengaitik erabaki zuten Israelgo estatua Palestinan ezartzea. Eta ez hori bakarrik: ordura arte han zeuden herritarrek, palestinarrek, handik botatzea erabaki zuten. Eta, indarkeriagaz, bertara bueltatzeko asmorik izan ez dezaten lortu gura dute.

Zein da Palestinarentzat gura duzun etorkizuna?

A.H.: Lurra berreskuratzea eta lurraldera bueltatzea da palestinarren helburua. Gero, han egonda, Autodeterminazio Eskubidea aldarrikatu eta Estatu Palestinarra sortu gura genuke. Estatu demokratiko, anitz, multietniko eta askea gura dugu, sionismorik bakoa. Musulmanen, juduen zein kristauen etxe izango dena.

"BOTERE EGITUREK BAINO GEHIAGO EGIN DUTE HERRITARREN MOBILIZAZIO SOZIALEK"

Y.H.: Askok uste dute Palestina erlijio bati loturiko zeozer dela, eta ez da hala. Palestinan denerik dago, kristau, musulman zein judu. Herrialde bat da, funtsean. Horri buruz ari gara.

Herritarrek zer egin dezakete Palestinaren alde?

S.H.: Israelgo produktuei boikota egitea izan daiteke aukera bat, baita desinbertsioak egitea ere. Telefonoetarako aplikazio bat dago (*No Thanks*), barra kodea eskaneatu eta produktua israel-darra ote den jakinarazten dizuna. Horrez gainera, boikoterako arrazoiak eta marka jakin horrek gatazkan duen zerikusia azaltzen dizkizu.

A.H.: Era berean, manifestazioak egiten jarraitu behar dugu, kalean egon behar dugu. Su etena indarrean dela ere, horretan jarraitu behar dugu, presioa egiten. Bestalde, honi guzti honi buruzko berbaldiak ematen ditugu aldiroraldi. Horretan jarraitu gura dugu.

N.H.: Hau ezin da ahaztu, begiak Palestinan ipinita jarraitu behar dugu. Erlaxatuz gero, gertatu den guztia ahaztu daiteke.

‘Nakba’-ren seme-alabak

1948an gertatu zen *Nakba* deritzona, arabieraz *hondamendia*, Israelek bere independentzia lur palestinarraren gainean aldarrikatu eta gutxira. Estatu sortu berriak milaka palestinarrak botatzen zituen jatorrizko lurretik; Nazio Batuen esanetan, gutxienez 710.000 herritarrek erbestera jo behar izan zuten, eta horixe da, hain zuzen ere, Anis Hawari durangarraren kasua. “Gure familiaren sorterrria kostaldeko Haifa hirian dago; han dugu etxea, nahiz eta momentu honetan suntsituta egon. Nire gurasoak hangoak ziren. Hiria bonbardatu eta okupatu zutenean, familiako kideek etxetik alde egin behar izan zuten, ama haurdun zegoela eta nire urtebeteko anaia besoetan zuela. Carmelo mendia zeharkatu eta portuan itsasoratu zirenean, han zegoen Erresuma Batuko armada, Palestinatik erretiratu eta lurra sionistek emateko

momentuan. Familiako kideak arrantza-ontzi batean sartu eta Libanon lehorreratu ziren, eta hantxe jaio nintzen ni. Libanon sortu nintzen, baina palestinarrak naiz, familiari lurra ukatu zioten eta. Harrezkero, hemen nago”, azaldu du. Hawarik ekonomia ikasketak egin zituen Madrilan, eta oporraldi batean ezagutu zuen Maria Jesus Berriozabalgoitia, Santanderren.

Hawari lez, asko dira mundu zabaleko herrialdeetan erbestea topatu zuten palestinarrak. Eta urrutira joaten ibili barik, bere senideak dira horren erakusle: “Bost neba-arreba gara, hiru gizon eta emakume bi. Bat Jordanian bizi da, beste bat Libanon, hirugarrena Kanadan, laugarrena AEBetan eta ni Euskal Herrian. Honako hau 1948ko nakbaren egoera zuzena dugu”, azaldu du Hawarik: “Palestinatik kanpora bizi behar dugu. Horrenbestez, modu batera edo bestera, gure



Haifako Carmelo mendia, 1948a baino lehenago. HAWARI-BERRIOZABALGOITIA FAMILIA

herrialdeak bizirik iraun dezan, inportantea da hezkuntza, kultura eta ikasketak lantzea. Nakbagaz pasatu den guztia kontatzeko, memorian gordetzeko, ezinbestekoa dugu hori guzti hori”, esan du. Alabak bat datoz aitaren esanekin: “Palestinarrontzat beti izan dira

garrantzitsuak ikasketak, hezkuntza akademikoa, kultura. Gogoan dut aitatik behin eta berriro esaten zigula hori. Dena kenduko digute beharbada: etxea, familia, lurra, baina ezagutzari eskerrak, kulturari eskerrak, iraun egingo dugu”, esan dute.

Pertsona nagusientzako akonpainamendu programa



94 623 25 22 / enplegua@dma.eus
Durangoko Elkartegira hurbildu

Nori dago zuzenduta?

Konpainiaren beharra sentitzen baduzu eta harreman sozialak eta personalak sendotu nahi badituzu, hurbildu zaitez.

Zertan datza?

Astean bi edo hiru bisita izango dituzu erreferentziako pertsona batekin. Zure udalerrri/etxera joango da, eta hainbat jarduera egin ahalko dituzu: hitz egin, paseatu, kartetan jolastu, erosketak egin...

Non emango da zerbitzua?

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, lurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

"Jaialdira datorrenak bere elkartasun aletxoak ipiniko du"

MAIXA VILLANUEVA LIZUR ETA ANES BAÑOS MADARIAGA 40 MINUTU ROCK
Nakar, Süne, Dupla, Anestesia eta La Txama otsailaren 15ean 40 Minutu Rock jaialdian oholtza gainean zuzenean arituko diren taldeetariko batzuk dira

Ekaitz Herrera DURANGO

40 Minutu Rock motorrak berotzen hasi da otsailaren 15erako egun osoko egitaraua antolatzeke. Elkartasun jaialdiak badu aldarrikapenetik, eta baita elkartasunetik ere. Presoen egoerak aurrerapausoak eman dituen arren, Maixa Villanuevak eta Anes Baños antolatzaileek azpimarratu dute oraindino ere badagoela bidea egiteko.

Hilabete eskas falta da. Zelan doa antolaketa?

Maixa Villanueva: Azken txanpan sartuta gaude, azkenengo prestaketa lanekin. Txandak antolatzen eta horrelakoetan gabilta.

Anes Baños: Kanpora begirako lanak eginda ditugu, eta orain barne antolakuntzako lanetan gabilta batez ere.

Kanpotik ezagutzen dugu, baina barrutik zenbat jende zabilzate lanean?

A.B.: 50 bat lagun gabilta lantaldeetan. Eszenatokia, komunikazioa, elektrizitatea, barrak,



Maixa Villanueva eta Anes Baños, Landako Gunean.

sukaldea, kamerinoak, segurtasuna, azpiegitura, talde feminista eta diruzaintza dira taldeak. Baina egunean bertan 600 pertsonak baino gehiagok parte hartzen dute antolakuntzan. Kontuan izan 10:00etan hasi eta 03:00era arte txanda asko bete behar dela.

M.V.: Jende askok ezin du konpromiso hori hartu urte osoan zehar, baina egunean bertan bai. Muntaiia egunetan asko igotzen da jende kopurua.

Zenbatgarren edizioa izango da?

M.V.: Aurten 9. aldia izango da. Pandemia sasoiaren urte bitan ez zen antolatu. Beraz, datorren urtean 10. aldia izango da. Aurreratu dezakegu datorren urtekoa berezia izango dela.

40 Minutu Rock zergaitik da inportantea?

A.B.: Elkartasun jaialdi bat da eta urterik urte momentuko egoerari erantzun dio. Presoen egoera azken urteotan asko aldatu da. Dispersioa amaitu da eta azken hiletan geroago eta preso gehiago dago kalea zapaltzen gradu progresioak izan direlako edo artikulu zehatz batzuk aplikatu zaizkielako. Kaleratze prozesu hori gertatzen dabilen arren, gizaratearen erantzuna eta babesa beharrezkoak dira prozesu horretan etxeratzeak ahalik eta duinenak izan daitezela. Irten badira, herria borrokatu delako izan da, baina aktibazio horretan jarraitu behar dugu, falta direnak etxeratzeke eta etxeratze horiek

ahalik eta duinenak izateko.

M.V.: Beharizan horiek ez dira gutxitu, aldatu baino. Eszenatokia aldatu den arren, kalean egoten jarraitu behar dugu, aldarrikapenak egiten, baita 40 Minutu Rocken ere.

A.B.: Oraindino asko dira hain etorkizun optimista ez duten presoak. Era berean, Frantzia betetako kondenen kontaketa aplikatzen denean beste testuinguru batean egongo gara.

Egitarauari dagokionez, zelan erabakitzen da musika taldeen zerrenda?

A.B.: Ez da erraza. Nahiko goiz hasten gara taldeen zerrenda zehazten. Ahalegintzen gara talde handiez gainera Durangaldeko taldeei euren lekua egiten. Gainera, musika estilotan oreka bati eusteko apustua egiten dugu. **Zalantzan dagoena zergaitik etorri beharko litzateke Minutu Rockera?** **A.B.:** Aurretik azaldu dugun problematika horren aurrean, hau ez da musika jaialdi bat bakarrik. Horregaitik, jendea etortzera animatu gura dugu. **M.V.:** Kontzertuez gozatzeaz gainera, jaialdira datorrenak bere aletxoak ipintzen du aktibazioan eta elkartasunean.

"GIZARTEAREN ERANTZUNA BEHAR DA ETXERATZEAK AHALIK ETA DUINENAK IZATEKO"

Lau desfibriladore ipini dituzte Durangoko gune banatan

Ezkurdin, Madalenan, Otamotzenan eta San Fauston ipini dituzte. Durango udalerrri kardiobabestu bihurtu gura dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak lau desfibriladore ipini ditu herriko hainbat puntutan, osasun larrialdietan erabiltzeko. Instalazioek honako elementu hauek dituzte: DOC desfibriladore bat -larrialdietako zerbitzuekin zuzenean konektatua duena-, esku hartzeetarako kit bat eta bihotz-masajeari laguntzeko RCP SAFE gailua. Desfibriladoreak honako leku hauetan ipini dituzte: Ezkurdin, arkupearen ondoan; Madalenako autobus geralekuan, Elorriorako eta Ondarroarako norabi-



Desfibriladorea Madalenako geltokian.

dean; Otamotzena parkean, Pagasarri kaletik gertu; eta San Fauston, frontoiaren ondoan. Udalak 22.000 euro erabili ditu gailuak instalatzeko.

Datozen egunetan, hainbat ikastaro egingo dute desfibriladoreak erabiltzen erakusteko. Interesdunek itxertudi@durango.eus helbidera idatzi dezakete. Euskarazko ikastaroak urtarrilaren 29an (19:00) eta 31n (17:30) izango dira. Gaztelaniazkoak urtarrilaren 27an (17:00), urtarrilaren 29an (10:00 eta 17:00) eta urtarrilaren 30ean (10:00 eta 17:00).

Desfibriladoreak ipintzeko proposamena EH Bilduk egin zuen, 2024ko aurrekontuen negoziatioetan. Gobernu taldeak koalizio subiranistagaz batera hitzartu zuen desfibriladoreak ipintzea.

LABUR-LABUR

Konponketa lanak Uribarri egoitza zaharrean

Durangoko Udalak 265.460 euro erabiliko ditu San Agustinalde kaleko egoitza zaharrean konponketa lan batzuk egiteko. Teilatutik ura sartzen da etengabe, eta eraikineko zenbait gune narriatuta daude.

Uretako puzgarrien beste jardunaldi bat zapatuan

Landakoko kiroldegia uretako puzgarrien beste saio bat hartuko du zapatuan. 5etik 12 urtera bitarteko umeek 16:30etik 19:30era gozatu ahal izango dute puzgarriez. Erreserbak Durango Kirolaketa web atarian eta kiroldegian egin behar dira.

Erretzeari uzteko ikastaroa, martxan

Mankomunitateak erretzeari uzteko ikastaro berria antolatu du. Jardunaldiak martxoaren 4an hasi eta martitzen arratsaldeetan egingo dituzte. Inskripzioak 94 620 05 20 telefononon edo adikzioak@dma.eus helbidean egin behar dira.

Eguzkitzako industrialdera begira

Durangoko Udalak birpartzelazio proiektua hasi du Eguzkitzan, bertan industrialdea eraiki ahal izateko. 96.989 metro karratuko eremua zazpi partzelatan banatuko dute.

Zelan eragin diezaioke Emisio Gutxiko Eremuen Planak Durangori?

Euskadiko Jasangarritasun Planak Emisio Gutxiko Eremuak martxan ipintzea agintzen die 25.000 biztanletik gorako herriei. Arau honek Durangori eragingo dio. "Durangok urteak daramatza mugikortasun jasangariaren aldeko neurriak martxan ipintzen", esan du udalak

Jone Guenetxea DURANGO

Eusko Jaurlaritzak Mugikortasun Jasangarriko Planaren proiektuari hasierako onarpena eman zion joan zen astean. Egitasmo horrek jasotzen dituen puntuetariko batek zeresana eman du. Izan ere, 25.000 biztanletik gorako herrietan Emisio Gutxiko Eremuak ezartzea aurreikusten dute. Beraz, Durangaldean irizpide horrek Durangori eragingo lioke. Neurri hau sorpresaz hartu dute Durangoko Udalean. "Neurria astelehenean argitaratu zen eta sakon aztertu behar dugun gaia da", azaldu dute udal iturriek. Neurri honek Bizkaiko beste herri batzuei ere eragingo die: Santurtziri, Portugaleteri, Basauriri, Leioari, Sestaori eta Galdakaori, besteak beste.

Mireia Elkoroiribe alkateak orain arte martxan ipinitako neurriak gogoratu ditu: "Durangon urteak daramatzagu mugikortasun jasangariaren alde lanean eta oinezkoei lehentasuna ematen. 2005etik hona, Alde Zaharrean lehentasuneko gune



Antso Estegiz kalea.

bat dugu oinezkoentzat, eta autoen sarrera mugatuta dago bertan". 2008an, udalak ibilgailuen sarbidea mugatu zuen Zumalakarregi kalean asteburuetan. Eta 2019an neurri hori San Agustinalden ere ezarri zuen.

Orain, udala Antso Estegiz kalea erabarritzen dabil. Lehenengo fasea amaituta dago, eta

bigarren eta azken fasea lizitatear daude. "Eraldaketa horri eskerrak, oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna bultzatzen jarraitu ahal izango dugu, eta asteburuetan ibilgailuen sarbidea mugatzea da gure asmoa, pertsonen protagonismo handiagoa emateko", azaldu du alkateak.

2.444 psikobonu eskuragarri gazte durangarrentzat

Durangoko Udalak 110.000 euro erabiliko ditu kanpainarako. Aurtengo edizioan, taldekako saioak ere egin ahal izango dira



Bonuak HAZen eta udalaren web atarian eskuratu daitezke. DURANGOKO UDALA

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak psikobonuen kanpaina berria aktibatu du asteon. Aurtengo edizioak berrikuntza bi dakartza. Batetik, erabiltzaileek 9 euro ordainduko dituzte bonu bakoitzeko, aurreko kanpainetan baino 4 euro gehiago. Udalak azaldu duenez, prezio igoeraren atzean honako arrazoi hau dago: iazko bonuen %20 (469 txartel) erabili barik geratu ziren eta beharrezana zeukaten herritar batzuk txartelak erabili ezinda geratu ziren. Hori dela eta, aurtengo kanpainara bideratutako diru kopurua %10 handitu dute. Bestetik, aurtengo, taldekako lau saio egiteko ere erabili ahal izango dira bonuak. Txartelak *bonoa.durango.eus* atarian edo Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan eskatu daitezke.

Aroztegiko zazpi auzipetuei elkartasuna adierazteko deia

Durangoko herritar talde batek otsailaren 1ean Iruñeko mobilizaziora joatera deitu ditu eskualdeko herritarrak

Ekaitz Herrera DURANGO

Otsailaren 1ean, zapatua, Aroztegiko zazpi auzipetuen aldeko manifestazioa egingo dute Iruñeko kaleetan. Hori dela eta, Durangoko herritar talde bat mobilizaziora joateko prestatzen hasi da, eta Nafarroako hiriburura joatera deitu ditu eskualdeko herritarrak. 12:00etan irtengo dira, Ibaizabal ikastolatik, autoz. Ibilgailua partekatu gura dutenek honako lotura honetan eman dezakete izena: labur.eus/Durango-LurrarenDefentsan. Aroztegia Lekarozen egitea aurreikusia

dagoen proiektu urbanistikoa da (Baztan, Nafarroa), luxuzko hotela, 225 etxebizitza eta golf zelai bat izango lituzkeena. Proiektua oso eztabaidatua izan da 2016tik, eta Baztango herritarrak zein instituzio publikoak askotan agertu dira haren kontra. 2021eko apirilean, hondeamakinak lursailera sartu ziren lanak hasteko, baina herritar talde bat makinaren aurrean jarri zen lanok eragozteko. Nafarroako Auzitegi Nagusiak 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euroko isuna ipini zien zazpi baztandarri.

IKERKETA



ZELAN ALDATZEN DA GURE HIZKUNTZA ZAHARTZEN GOAZELA?

EUSKARAZ HITZ EGITEAK ETA HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO JAKITEAK BA OTE DU ERAGINIK ZAHARTZAROAN?

-  **NOR BILATZEN DUGU**
60 urtetik gorako euskaldunak
Ama hizkuntza euskara edo gaztelania.
-  **Ordubeteko 2 edo 4 saio**
Bakarkako saioak.
-  **ZER EGITEKO**
Elkarrizketa:
froga kognitibo batzuk eta hizkuntza ariketa errazak.
-  **20 €ko saria**
-  **NON**
Durango. Laubideta 6
Intxaurren ondo atzealdeko oktagonoa.

EMAN IZENA



ANIMATU GERTUKOAK!

945 013 159 · gogo.elebiduna@ehu.eus









Finantziaketa

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila

Bizkaia

PI02023-1426250A-I00 proiektua
MICI37481/2013039/50230003033 ek
eta FEDER, UE-ek finantzatuta

Bizkaiko sagardoaren denboraldi berria, martxan

Bizkaiko 2025eko Txotx denboraldiaren aurkezpen ekitaldia egin dute, asteon, Zornotzako Uxarte sagardotegian; Aitor Ariztegik lehenengo txotxa egingo du gaur; ondoren, afaria egingo dute, trikitilari, txalapartari eta bertsolariekin

A. M. ZORNOTZA

Bizkaiko 2025eko Txotx denboraldiaren aurkezpen ekitaldia egin dute Zornotzako Uxarte sagardotegian. Izaro musikari mallabitarra izango da aurtengo enbaxadorea. Aurkezpenean esandakoaren arabera, aurtun 83.000 litro sagardo natural ekoitzi dira Bizkaian, itxarondakoa baino sagar gutxiago batu eta gero; ezaugarriei dagokienez, aurreko denboraldiaren antzekoak ditu: "kolore argiko sagardoa, egituratua eta orekatua". "Klimatologia faktore erabakigarria da, eta zuzenean eragiten dio azken produktuari. 2024ko uzta aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da bolumenari dagokionez, neguan hotzik egin ez duelako, eta loraldian euri gehiegi egin duelako", azaldu du Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko Sagardogileen elkarteak presidentea. Bizkaiko sagardoa bertako sagarrekin egindakoa dela ere nabarmendu zuten ekitaldian. "Sagardo berriaren



Zamalloa eta Izaro, ordezkari politikoak inguruan dituztela. BIZKAIKO SAGARDOA

aldeko apustua egin dugu, naturala ahaztu barik", esan zuen Zamalloak.

Lehenengo txotxa

Gaur, hilak 24, Bizkaiko sagardo denboraldiari hasiera eman gion ekitaldia egingo dute

Uxarte sagardotegian, lehenengo txotxa. Aitor Ariztegi arduratuko da horretaz. Ondoren, afaria egingo dute Aissa Intxausti eta Unai Iturriaga bertsolariekin; Etxebarria aita-seme trikitilarietako eta txalapartarietako ere parte hartuko dute.

Berrizbururako sarbide digital sistema berria ipini dute

Berrizko Berrizburu kiroldegira NIK Patrika Digitala aplikazioaren bidezko txartel digitalagaz sartu ahalko da



Tornu berria ipini dute.

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak sistema berria ipini du Berrizburu kiroldegira sartzeko. Aurrerantzean, herri-tarrak NIK Patrika Digitala erabilita sartu daitezke. "Plastikozko txartelen alternatiba eroso eta erraza da, eta dagoeneko erabili daitezke", azaldu du udalak ohar baten bitartez. Txartel digitala mugikorrean deskargatu eta konfiguratu eta gero, nahikoa izango da mugikorreko pantaila erakusteko. Bestalde, tornu berria ipini dute kirol instalazioetan eta gimnasioan sartzeko. "Sarbide-kontrola askoz ere seguruagoa, erosoagoa eta ordenatuagoa izango da instalazioetako erabiltzaileentzat", nabarmendu dute. Gainera, otsailaren 4an Berrizko udal kontseilua batuko dela jakinarazi dute; 18:30ean da hitzordua, Nagusien Etxean.



Kale Ordenantzaren aurka egindako mobilizazio bat.

EH Bilduk helegitea ipini dio kale erabileraren ordenantzari

Koalizio subiranistak auzitegiara eraman du araudi berria, "forman eta edukian akatsak" dituelakoan

E. H. ZORNOTZA

Zornotzako EH Bilduk helegitea ipini dio Espazio Publikoaren eta Kaleko Salmentaren Ordenantzari. Euskadiko Auzitegi Nagusian ipini du salaketa, araudiak "forman eta edukian akatsak" dituelakoan. Koalizioaren berbetan, gabezia horiek nahikoa lirarteke ordenantzaren prozesua "hasieratik baliogabetzeko". "Araudi horrek izango duen eraginari buruzko azterketak ez ditu, edukiari dagokionez, legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen; genero-eraginari buruzko txostenak eta aurrekontu-txosten tek-

nikoa ez zeuden hasieratik jasota, gure alegazioak aurkeztu ondoren gehitu zituzten, horien inguruko edozein emendakin egiteko aukera ukatuz", azaldu dute ohar baten bitartez.

Espazio Publikoaren eta Kaleko Salmentaren Ordenantza iazko martxoan sartu zen indarrean, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin; EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek kontra bozkatu zuten. Herri mugimenduko eragile ugari ere kritikatu zuten. Auzitegiaren ebazpenak "luze" jo dezakeelakoan, EH Bilduk kaudelazko neurriak eskatuko ditu.

Aste honetan Berba Parranda hasi dute Elorriko, plazak beteta

Oihana Etxegibelek gidatzen du Elorriko Udal Bibliotekak sortutako Berba Parranda irakurketa kluba

A. M. ELORRIO

Elorriko Udal Bibliotekak Berba Parranda irakurketa kluba sortzeko apostua egin du ikasturte honetarako. Oihana Etxegibelek gidatuta, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetakozko gazteei zuzenduta dago. Gainera, hasiera arrakastatsua izan du, eskaini diren plazak beteta ekin dio eta jardunari. Guztira, hamahiru neska-mutil animatu dira bertan parte hartzera. Eguaztean ipini zuten martxan, eta Txangoan txiripaz komikia izan zuten irakurgai. "Argitaratu

berriak zein betiko klasikoak direnak ezagutaraztea eta edukiak norberari sortu dizkion inpresioak partekatzea da Berba Parrandaren helburua", azaldu du Elorriko Udalak ohar baten bitartez.

Lehenengo saioan proposaturiko liburua irakurtzeko tartea izango dute orain parte hartzaileek, bigarren saioa izan artean. Ekimenean parte hartzen duten gazteak eta Etxegibel berriro batuko dira hilabete barru, irakurritakoari buruz berba egin eta hausnartzeko.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAINTZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria.
Bertokoa, ekologikoa
eta sasoikoa.



ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA

Urtarrilak 25ean 11:00etan

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 3tik 14ra



Abadiño prest otsailaren 3ko San Blas azokarako

Aurtengo San Blas azokan 130 bat ekoizle eta 180 abelburu izango dira. Udaleko kideek azaldu dute egitarau zabala antolatu dutela, eta herritarrei eta herrira bertaratzen direnei "jai giro bikainaz gozatzeko" dei egin diete

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Dagoeneko hasi dira herrigunea atontzen, eta Abadiñon ia dena prest dago otsailaren 3an San Blas azoka hartzeko. "Egun handia astelehena izanik, jende ugari batzea espero dugu, eta jai giro bikainaz gozatzeko opa diogu Abadiñora bertaratzen den pertsona orori", azaldu dute udal iturriek.

Azokari dagokionez, gune nagusia trinketeko aparkalekuaren inguruan egongo da, urtero legez. Bertan, BBKren laguntza jasotzen duen nekazaritza azoka egongo da. Abadiñoko Udaletik jakinarazi dute 130 bat ekoizle batuko direla. 32 ogi eta gozogintza postu, 13 gazta postu, ortuarien 12, bederatzi ezti saltzaile eta zortzi sagardo eta txakolin ekoizle, besteak beste. Postu hauen guztien artean, sari bi banatuko dituzte: bata fruta eta bazkari posturik onenarentzat izango da, eta bestea nekaza-



Mikel Urrutia eta Edurne Maguregi.

ritzaz azokan ondoen apaindu-tako postuak jasoko du.

Artisautza azokari dagokionez, Txanporta plazan egongo da eta 26 postu egongo dira bertan. Abeltzaintza azokako karpak trinketaren atzeko aldean egon-

go dira, eta landare gunea (aurten zortzi postuk osatuko dute) trinketeko aparkalekuan. Azkenik, nekazaritzako makineriaren gunea Gaztañodi parkean egongo da. Guztira, 13 erakusle izango dira.



Skeletoon taldea, iazko Koba Live saioan.

Asgarth eta Moonshinerds irailaren Abadiñon, Koba Live-n

Koba Live-ren aurtengo edizioak egun bakarra izango du eta irailaren 20an izango da. Sarrerak eskuragarri daude

M.Z. ABADIÑO

Irailaren 20an Koba Live jaialdiaren beste edizio bat egingo da Abadiñon, eta antolatzaileek bertan izango diren beste talde biren berri eman dute aste honetan. Bata eskualdekoa da, Moonshinerds talde durangarra. Bestea, Asgarth talde gipuzkoarra da. Antolatzaileek azaldu dutenez, Moonshinerds eta Asgarth taldeen baieztapenagaz Abadiñon antolatzen den jaialdiak euskal taldeen presentzia izango du.

Talde bi hauek aurretik iragarritako nazioarteko beste bost talde hauei batu zaizkie: Eclip-

se, Wolfheart, Suicidal Angels, The Electric Alley eta Before The Dawn. "Oraindino ez dugu zarratu taldeen zerrenda, eta, beraz, adi egon hurrengo konfirmazioei", gaineratu dute antolatzaileek.

Sarrerak eskuragai

Bestalde, Koba Live jaialdia egun bakarrekoa izango da aurten, irailaren 20an, eta antolatzaileek jakinarazi dute sarrerak eskuragarri daudela dagoeneko. Sarrerak koba-live.com/eu/sarrerak webgunean erosi daitezke.

Aurrekontu parte hartzaileak martxan dira Zaldibarren

Herritarrek otsailaren 3ra arteko epea dute proposamenak egiteko. Udalak herri batzarrera deitu du otsailaren 25erako

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak aurrekontu parte hartzaileak izango ditu aurten ere, eta 20.000 euroko zuzkidura prestatu du horretarako. Herritarrek otsailaren 3ra arte egin ahal izango dituzte proposamenak udal bulegoetan, udal liburutegian, eta baita udalaren web orrialdean ere. Ondoren, otsailaren 25ean, udalak herri batzarra egingo du; bertan erabakiko dituzte aurrekontu orokorraren zati izatera igaroko diren proiektuak. Udalak gogoratu duenez, egin beharreko

proposamenak instituzioaren eskumenekoak izan beharko dira. Gai hauetakoak: hirigintza, obrak eta zerbitzuak, berdintasuna, kultura, hezkuntza, euskara, gazteria, gizarte ekintza, ingurumena, osasuna eta herritarren segurtasuna. Eneritz Azpitarte alkateak ekarpenak egitera deitu ditu herritarrek: "Aurrekontu parte hartzaileek herritarren kezak eta proposamenak modu zuzenean jasotzeko aukera eskaintzen digute. Funtsezko tresna dira Zaldibar hobetzeko.

'Ez esan' galdera-erantzunen jokoa martxan da berriro ere

Udal bulegoetan zein herriko taberna eta dendetan daude lehiaketan parte hartzeko inprimakiak



Iazko lehiaketako argazkia. BERBALAGUN

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko hilerik hileko galdera-erantzunen lehiaketa martxan da berriro ere. Herritarrek herriaren zehar zabaldu diren bost galderari erantzuteko aukera izango dute urtarilaren azken egunera arte. Mallabiko Berbalagunek antolatzen duen lehiaketan parte hartu gura dutenek udal lokaletan, herriko tabernan zein dendetan dagoen galdetegia bete beharko dute.

Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute zozketa bi egongo direla lehiaketan parte hartu eta galdera guztiak asmatzen dituzten parte hartzaileen artean. Lehenengoan hileko irabazlea aukeratu dute, eta bigarrenengoan lehenengo saridunagaz batera finalera pasatuko den beste kidea aukeratu dute.

OSASUN GIDA

 **Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**
PSE: 162/13


NAIA ZABALA AUZMENDI
11507 kol. 2k.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEKUA • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Sala pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clinicadental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



 **Psikologia**



gure
Zure bidelagun

Haur, nerabe eta helduentzat

Bikote-arazoak, antsietatea eta estresa,
depresioa, eskola eta ikasketen zailtasunak,
arreta gaitzilaria, familia-arazoak, portaera-
arazoak, estimulazio kognitiboa; oroimena,
hitzkuntza, arazoak logika, elikadura-
portaera, diskalkulia eta dislexia.

 623 173 181 - 613 038 933
Andra mari 16 ID Durango

 **Odontologia**
PSE: 26/22



viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Asteleneretik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hitzorduek hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com



Anbotokideen txokoa

URTARRILEKO ZOZKETAK



Euskaraldiko materiala. Kamiseta beltza (haurrak) eta Elkar mugituz egingo dugu lelodun poltsa.



Basa Take Away jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaituz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



Axpeko udaletxe zaharrean egindako komun berria.

Atxondoko Udalak komun berria egin du Axpeko udaletxe zaharrean

Erabilera anitzeko gela dagoen solairuan dago. Biltegi espazio zati bat erabili dute komuna egiteko.

J.D. Derteano ATXONDO

Atxondoko Udalak komun berri bat egin du Axpeko udaletxe zaharrean, erabilera anitzeko gela dagoen solairuan. Udalak berregituratu egin du lehendik han dagoen biltegi espazioa eta gune zati bat komun berria egiteko erabili du, udalak bere sare sozialetan jakinarazi duenez.

Erabilera anitzeko gela toki erabilia da herritar askorentzat. Izan ere, urtean zehar hainbat ekitaldi egiten dute bertan. Adibidez, udalaren eta bizilagunen arteko auzo bilerak hantxe egi-

ten dituzte urtero. Horrez gainera, erabilera anitzeko gune horrek umeei zuzenduriko askotariko ekintzak ere hartzen ditu urtean zehar.

Zerbitzu berria

Komun berria herritarrei beste zerbitzu bat eskaintzeko helburuz egin dute. "Komun berriagaz, udalak herriko erabiltzaileei eskaintzen dien zerbitzua eta erosotasuna hobetu gura izan ditu, Atxondoko biztanleen premiekiko konpromisoa indartuz", adierazi dute udal ordezkariak.

Atxondoko jubilatuen taberna berriro lizitazioa

Hileko alokairua 50 eurora jaitsi dute. Hamar egun naturaleko epea dago proposamenak aurkezteko

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak beste ahalegin bat egingo du Apatako jubilatuen taberna zabaltzeko. Horrela, tabernaren kudeaketa lizitatzeko prozesua hasi du asteon, ohar batean azaldu duenez. Hileko alokairua 50 eurora (BEZa barne) jaitsi du. Urtarrilaren 22tik hasita, 10 egun naturaleko epea dago proposamenak aurkezteko. Lehiaketako oinarriak eta baldintzak udalako webgunean 'Kontratatuzailearen Profila' atalean jaso daitezke. Esleipena urtebetekoa izango da eta beste urte batez luzatzeko aukera dago.



Atxondoko jubilatuen taberna.

Mañariko ondareak euskaraz ezagutzeko ibilbidea, hilaren 31n

Jon Arroita gidatuko du Berbalagunek eta Gerediaga elkarteak elkarlanean antolatutako ibilbidea

J.D. MAÑARIA

Euskara eta ondarea uztartuta, eta azkeneko Ondarearen Europako Jardunaldietan Mañariko egindako ibilbidea oinarri hartuta, Berbalagunek eta Gerediaga elkarteak beste irteera bat antolatu dute elkarlanean. Ibilbidea urtarrilaren 31n izango da eta ordu bi inguruko iraupena izango du: 16:00etatik 18:00etara. Jon Arroita izango da gidaria.

Mañariko plazatik irtenda, Arrueta auzoan murgilduko dira, eta Zallobentako eta As-

kondoko harrobiak ezagutuko dituzte. Bere sasoiari, Mañariko harrobiak ezagunak izan ziren kalitate handiko marmola zutelako. Madrilgo Errege Jauregiara ere eraman zuten marmol ospetsu hori, XVIII. mendean zehar. Horregaz batera, San Lorentzo argi etxera eta Kaltzada baserrira ere joango dira, bentak izan duen garrantzia azaltzeko.

Antolatzaileek argitu dute urretik izena ematea beharrezkoa dela parte hartzeko. Izen ematea 639 400 786 telefonoko WhatsApp egin daiteke.

Izurtzan martxan da euskararen erabilera ezagutzeko inkesta

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak euskararen erabilera sustatzeko plangintza bat diseinatzeko asmoa du. Bide horretako lehenengo pausoa diagnostikoa egitea da, herritarren ikuspegia jasoz. Horretarako, hamar galderako galdetegi banatu du etxerik etxe. Bertan, euskararen arloan herrian dauden indarguneei eta ahulguneei buruz galdetzen zaie herritarrei, besteak beste. Galdetegi postontzian utzi daitezke, urtarrilaren 29ra arte. Gura duenak galdetegian ageri den QR kodea erabili dezake galderrei erantzuteko. Ondoren, parte hartze saio bat egongo da herritarrekin.

Durango, euskal karabana solidarioaren hiriburu

Euskal Autonomia Erkidegoko trailer guztiak udalerritik irtengo dira Tindufeko kanpalekuetara. Aurretik, kanpaina solidarioa hasiko dute. Oinarrizko elikagaien bilketa otsailaren 4tik 16ra egingo dute, Durangaldeko hainbat herritan

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

"Saharako herriak inoiz baino laguntza gehiago behar du". Halantzik adierazi zuten joan zen asteko prentsaurrekoan euskal karabana solidarioaren bultzatzaileek. Durangoko alkate Mireia Elkoroirik, Río de Oro elkarte arduradun Mikel Del Arcok eta Euskadiko Saharak Ordezkaritzako zuzendariorde Fatma Labiadek aurtengo kanpainako zehaztasunak eman zituzten Durango udaletxean.

Urtero legez, oinarrizko elikagaiak bidaliko dituzte Euskal Autonomia Erkidegotik Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara: aurreikuspenen arabera, bost bat trailer bete elikagai, eta baita anbulantzia bat eta 4x4 ibilgailu bat ere. Eta ibilgailu horiek guztiak Durangotik irtengo dira, lehenengoz; beraz, eskualdeko herriburua izango da kanpainako elkargune. Alkateak azaldu zuen "ohore handia" dela udalerria elkartzaren egitasmoaren abiapuntu izatea. Era berean, udalerririk orain arte izandako

konpromisoa berretsi zuen. Antolatzaileek ez dute irteera data zehaztu oraindik, baina martxo hasieran bidaliko dituzte trailerrak. Edozelan ere, Durangaldeko bilketa egutegia, bai, argitu dute: eskualdeko herritarrek otsailaren 4tik 16ra bitartean eman ahal izango dituzte dohaintzan sahararrentzako elikagaiak, ikastetxeetan, kiroldegietan zein supermerkatuetan. Antolatzaileek 100 tona elikagai bidaltzeko aurreikuspena egin dute.

"Herri sahararrak 50 urte daramatza injustizia, erbestea, tortura eta gerra sufrizten. Orain, horri guzti horri osasun krisialdi bat eta hondamendi naturalak batu zaizkio, iazko urrian uholde handiak izan ziren-eta han", adierazi zuen Mikel Del Arcok. "Hori dela eta, momentu honetan, elikagaien larrialdia eta larrialdi humanitarioa bizi dituzte Saharan", gaineratu zuen. Fatma Labiadek ere azpimarra egin zion horri, eta gaineratu zuen laguntza solidarioarik barik herritarrek ezingo luketela aurrera egin.



Karabana solidarioaren bultzatzaileak joan zen barikuko prentsaurrekoan.

PUBLIERREPORTAJEA

Orue: 20 urte baino gehiago Bizkaiko bihotzean adinekoak zaintzen

IMQ Igorco Orue egoitza Zornotza eta Durango artean dago, Arratia haranetik oso gertu, eta zainketa-arloan etengabe berritza du bereizgarri

Rakel Llamosas

ZUZENDARIA

IMQ Igorco Orue



IMQ Igorco Orue egoitzak 2002an atea zabandu zituenean gaurdaino, Zornotzako, Durangaldeko eta Arratia haraneko ehunka adineko egoitzako profesionalen esku utzi dute euren zainketa.

Egoitza pazienteen segurtasunerako arriskuak kudeatzeko sistema baten ziurtagiria lortu zuen lehenengoa izan zen Euskadin, 2018an.

Diziplina anitzeko talde espezializatu bat arduratzen da zainketez, medikuntza geriatiko eta 24 orduko erizaintzaren eskutik. Lehenengo balorazio geriatikoa egin ondoren, Arreta eta Bizitza Plan bat (pertsonek ardatz duen arreta) diseinatzen du adineko bakoitzarentzat, pertsonaren gaitasun funtzionalak eta kognitiboak irauaraztera bideratutako ekintza zehatzen bidez. Egun, teknologia berrien laguntzaz, etxeko zainketa-planak ere egiten ditu.

IMQ Igorco Orue egoitzako profesionalak adituak dira sindrome geriatikoei aurre egiten: narriadura kognitiboa, mugiezintasuna, erorikoak, gerneru-ihesa eta hauskortasuna —mendekotasunaren aurreko aldia—. Nutrizioa eta tratamendu far-



IMQ Igorco Orue egoitzaren kanpoaldea.

makologikoak ere etengabe ebaluatzen dira.

Egoitza-unitatea ez ezik, errekuperazio funtzionalerako unitate bat ere badu zentroak, autonomia murrizketa puntualak (hausturak, iktusa edo ospitaleratze luzeak, besteak beste) izan dituzten pazienteen eskura.

Egoitzako profesionalak nabarmendu egiten dute adinekoek eskualdeko komunitate-bizitzan

parte hartzen jarrai dezatela, hainbat kultura-, gizarte-, erlijio- eta jolas-jardueretara bertara daitezela, alegia.

Joan den urtearen amaieran, eraberritzeko plan bat hasia da, 2025ean zehar jarraituko duena, egoitzako adinekoen zainketa eta erosotasuna hobetzeko asmoz; hala, instalazioak berritu egingo dira eta banako gelen kopurua handitu egingo da, besteak beste.

Bertsio gaua Sahararen alde

Río de Oro elkarteak Sahararen aldeko bertsioren lehiaketa gaua antolatu du maiatzaren 17rako, Plateruenean, 20:00etatik 01:00etara. Lehiaketan 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Kontzertu bakoitzaren iraupena 15-20 minutukoa izango da. Parte hartu dezaketen talde kopuru maximo bat dagoenez, oholtzara igoko diren taldeak aurretik hautatuko dituzte. Parte hartzearen baieztapena martxoaren 12an ezagutaraziko dute.

Saria ez da edonolakoa: 500 euro. Eta, gainera, Sahararen aldeko ekimenetan musikaren bitartez bakoitzak bere aletxoak ipintzeko aukera izango du. Beraz, musika talde zein bakarlariek aukera dute riodeorodurangohotmail.com helbidera idatzi eta izena emateko. Hori bai, bertsioguruak duten taldea aukeratu beharko dute aurretik, eta martxoaren 5a baino lehenago izena eman. Hortik aurrera, entseatzeko izango da gakoa.

Osasun sistemaren egoera salatzen deia

Otsailaren 1ean osasungintza publikoaren aldeko manifestazioak egingo dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuetan. Durangaldeko pentsiodunek Bilbokora joatera deitu dute. Manifestazioa 12:00etan irtengo da, Jesusen Bihotza plazatik

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Osasun arreta publikoak iaz izandako bilakaera aztertu eta gero, aurtengo zerumuga antzerakoa izango dela uste dute Durangaldeko pentsiodunek. Egoera "onarrezina" eta "kaotikoa" dela diote, eta gertaturikoen zerrenda bat aletu dute prentsauraren: "Gure herrietan ez da medikurik egoten batzuetan; Gabonetan medikuak falta izan dira Berrizen eta Zaldibarren; Durangoko eta Zornotzako Etengabeko Arreta Guneak zarratuta egon dira batzuetan; kontsulta bat egiterakoan, erizainak ipintzen dituzte mediku lanetan; pazienteek 48 ordu igarota jasotzen dute medikuagaz egoteko hitzorduen berri; eta kontsulten %45 telefonoz egiten dira". Osasun sistema publikoa "etengabe hondatzen" dabilela eta, otsailaren 1ean kalera irtengo dira protestan. Durangaldeko pentsiodunek Bilboko manifestaziora joatera deitu dituzte herritarrik. Mo-



Durangaldeko pentsiodunek eguaztenean egin zuten agerraldia.

bilizazioa 12:00etan irtengo da, Jesusen Bihotzetik. Era berean, iaz eskualdeko hainbat udaletan aurkezturiko mozioak aipatu dituzte. Jakinarazi dutenez, eskariek aurrera egin zuten Durangon, Zaldibarren, Elorrion, Izurtzan,

Atxondon eta Iurretan. Zornotzan osterara, ezezkua gailendu zen. Berrizen, Abadiñon, Mañarian eta Garain ez dute mozioak aurkeztea baztertu. Osasungintza publikoa berma zedila eskatu zuten adierazpenetan.



Martxa Askondo kalean hasiko da. ARTXIBOKO IRUDIA

Basatzen bizikleta martxa solidarioa egingo dute Iurretan

Zaldai mendi taldeak 28 kilometroko ibilbidea prestatu du. Dirua Angelman Sindromea elkarteari emango diote

A.Basauri IURRETA

Basatzen mendi bizikleta martxa egingo dute Iurretan, zapatuan. Zaldai Mendi taldeak zortzigarrenez antolatu du martxa solidarioa, eta baturiko dirua Angelman Durangaldea elkarteari laguntzeko izango da. Askondon ipini dute hitzordua, 10:00etan.

Zaldaik 28 kilometroko ibilbidea prestatu du, Oiz mendiaren magaletik. Izena eman gura duenak kirolprobak.com atarian egin dezake hori, 10 euro ordainduta. Egunean bertan ere egongo da aukera izena emateko, 09:00etatik 09:45era bitartean;

ordu, 13 euro izango dira. Izena ematen duten lehenengo 150 pertsonen buff bat jasoko dute opari.

Gallandara frontalekin

Bestalde, Gallandara mendi irteera egiteko aukera egongo da zapatuan. Ibilaldia 18:00etan hasiko da eta frontalekin egingo dute. Zaldai mendi taldekoek azaldu dutenez, umeekin egiteko moduko ibilbidea prestatu dute. Gainera, txikienek ibilbideerdian batzeko aukera izango dute, Luquarrietatik hasita. Ibilaldia Askondon hasiko da.



800 euro batu zituzten errematan

Tradizioari eutsiz, Garain erremata egin zuten joan zen barikuan. Ardi-esnez beteriko botilak, arrautzak, lukainak, txorizoa... denerik irten zen enkantera. Sortarik sorta eta preziorik prezio, 800 euro batzea lortu zuten. Diruaren erdia parrokiarako erabiliko dute. Beste erdia Caritasi emango diote dohaintzan.

38.000 euro Otxandioko lorategi eta berdeguneak zaintzeko

A.Basauri OTXANDIO

Otxandioko Udalak kontratazio prozedura bat gauzatu berri du herriko berdeguneak, lorategiak eta hilerria prestatu eta zaintzeko lanak betetzeko. Abadiñoko Crisan Garden lorezaintza eta ingurumen enpresa arduratuko da lan horietaz, eta urtean 38.000 euroko aurrekontua izango du horretarako. Halaxe jakinarazi dute udal ordezkariak.

Bestalde, otsailaren 6rako batzarrera deitu dute Otxandio 2030 Biziguruz Betie herri dinamikagaz jarraitzeko. 18:30ean izango da, kultur etxean. Iazko balantzea egingo dute eta 2025eko proiektu nagusiez eta herri dinamikez jardungo dute.



BAKIXAKO JAI BATZORDEA

Giro ezin hobea Bakixako jaietan

Giro ederrean ospatu dituzte San Sebastian jaiak Iurretako Bakixa auzoan. Dantzariak, herri kirol erakustaldia, mus arineko txapelketa eta trikitilariak girotutako bazkaria izan dituzte. Gainera, Danborrada Erraldoia egiteko elkartu ziren zapatu gaez. Jaietako errifaren irabazlea Beñat Abasolo izan da, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Aritz Aldalurrek eta Oihane Isasik irabazi dute JAEDen autoa

Garain bizi den bikote durangarrak barikuan jaso zuen Renault Clio Techno TCE90 markako autoa

J.D. DURANGALDEA

JAEDen zozketa solidarioko sari nagusiak baditu jabeak: Aritz Aldalur eta Oihane Isasi, Garain bizi den bikote durangarra. Joan zen barikuan jaso zituzten Renault Clio Techno TCE90

markako autoaren giltzak, Gaursako kontzesionarioan egindako ekitaldian.

Zozketaren egunean bertan jakin zuten eurak zirela irabazleak. Honela gogoratu du Oihane Isasik momentua. "Zor-

tzi urteko semeak zozketako txartel bat zuen bere izenagaz, aitatik erregalatuta. 'Kotxea tokatzen bazait, niri erosi *Play Station* bat eta kotxea zuentzat', esaten zigun. Broma horregaz ibili ginen. Gero, etxera joan eta lotara joan aurretik alabak esan zidan: 'Ama, oraindino ez ditugu txartelak begiratu'. Zerbakiak ANBOTOn begiratu, eta autoaren zenbakia gurea zela konturatu ginen. Sorpresa itzela hartu genuen!", kontatu du Isasik.



Aritz Aldalur ezkerrean.



POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Estilo kontua

Aurrekontua erakundeetan izan dezakegun tresna garrantzitsuenetakoa da. Izan ere, finantza-terminoetan jasotzen den urtebeteko ekintza-plan bat da, bertan aurreikusten diren diru-sarrerak eta betetzea espero diren helburuak, garatuko diren ekintzak eta inbertsioak jasotzen dituen.

Durangoko Udalean abenduan onartu genuen 2025erako izango dugun bide-orria.

Gobernu taldeak zintzotasunez, zuhurtziaz eta gardentasunez landu zuen bere proposamena, ekarpenak egiteko aukera bermatuz, adostasun zabalarekin onartua izateko etengabeko bilaketan jardun zuen.

Oposizioak, hasieran negoziatzeko asmoa agertu bazuen ere, inolako azalpenik eman gabe, azken orduan iritiz aldatu eta proposamenari ezetz. Adostutakoari uko egin eta trikimailu, espazio eta bozgorailu guztiak erabiliz, zarata ateratzea eta kalean ezinegona sortzea besterik ez.

EAJn, kostata aurrera atera den aurrekontuak adierazten dituen baliabide mugatuekin, identifikatutako premia eta beharrak, modu eraginkor eta bidezkoenean, kudeatzen eta erantzuten ari gara, etorkizuna planifikatzeaz ahaztu barik.

Jeltzaleok orekaren bila lanean jarraitzen dugu, betiere durangarren bizi-kalitatean positiboki eragiteko eta berau hobetzeko helburu bakarrarekin.

Egiteko modua, estilo kontua.

DURANGALDEA ASTEON

Durangoko ludotekan izena emateko epea, zabalik

DURANGO Udal Ludoteka Intxaurrendoko instalazioetan izango da, zapatuetan 17:00etatik 20:30era, eta domeketan 17:00etatik 20:00etara. Izena emateko epea urtarrilaren 29an amaituko da. Eskabideak Intxaurrendoko eraikinean egin ahal izango dira, eta baita 946 030 030 telefonoan edo intxaurrendo@durango.eus helbidean ere.



Durango, Euskal Herriko arte martzialen epizentro

DURANGO Joan zen asteburuan, Durangoko Anboto-Wadokan gimnasioa arte martzialen epizentro bihurtu zen. Bertan, Munduko Txapelketan izango den AIAMA Selektzio kideak egon ziren eta entrenamendu saio bereziak egin zituzten.

Horren aurretik, baina, Durangoko Udaleko kideek harrera egin zieten udaletxean.



PODEMOS ABADIÑO

Podemosek zirkulu berri bat du Abadiñon

ABADIÑO Podemos Euskadik Abadiñon militantz osaturiko zirkulu berri bat sortu duela jakinarazi du. Bertatik azaldu dutenez, taldeko gehienek "hainbat urtetako esperientzia" dute Durangaldeko zirkuluan. "Herriko hainbat pertsona ilusioz eta lan egiteko gogoz elkartzea lortu dugu", azaldu dute. Zirkuluko bozeramailea Alfonso Arroyo da, feminismoaren arloa Josefa Sotelo 'Pepi'-k kudeatuko du eta komunikazio arloan Odei Olaso arituko da.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua




ZENBATU


Zenbatu marrazkiko elementuak.




LABIRINTOA



← LAGUNDU ASTRONAUTARI



BERE ONTZIRA ITZULTZEN →



Eskuratu
anbotokideek dituzten
— abantaila guztiak —

30 euro ordainduta,
lortu abantaila hauek guztiak



**Hileroko
zozketa bereziak**

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak,
ikuskizunetarako sarrerak eta askoz
gehiago! 2024an, 200 anbotokidek
baino gehiagok jaso dute sari bat.



**Poltsikorako
abantailak**

Deskontuak Durangaldeko
eta Euskal Herriko hainbat
komertzio eta Euskoil gasolindegian.



**Deskontuak
Anbotoko
zerbitzuetan**

Eskelak, iragarki sailkatuak,...



**Eta, gainera,
onura fiskalak**

Errenta aitorpenean,
Anbotorena lehentasunezko
jarduera delako, %30eko hobaria.

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!





Gaztelu-urrutia, Jonah Hauer-King eta Mary Elizabeth Winstead aktoreekin. EPK

"Beti da momentu ona aberastasunaren banaketaz berba egiteko"

ZINEMA Gaur helduko da Hego Euskal Herriko eta Espainiako zinemetara 'Rich Flu', Galder Gaztelu-urrutiaren azken lana; pelikula honetarako, zinegileak Mary Elizabeth Winstead, Rafe Spall, eta Lorraine Bracco aktoreekin lan egin du, besteak beste

Aritz Maldonado BILBO

Nahiko denbora tarte laburrean, eta ia paraleloan, Galder Gaztelu-urrutia zine zuzendari abadiñarrak pelikula bi egin ditu: *Rich Flu* eta *El hoyo 2*. Lehenengo euren kabuz egin dute, sortu eta finantzatu, eta orain hainbat herrialdeetako banatzaileei saldu. Bigarrena *El Hoyo* pelikula entzutetsuaren jarraipena da, eta Netflix plataforma erraldoiaren babesa du. Bietan, baina, egiteko modu antzerakoa eta estilo propioa erakutsi ditu Gaztelu-urrutiak. Fikzioaren bitartez, gaurkotasan totala duten gaiak plazaratzeko gaitasuna erakutsi du.

'Rich Flu'-k erditze gogorra izan du. Gogotsu zaude estreinaldirako?

Kurioso da. Pandemiaren aurretik hasi ginen lan hau idazten. Zorte handia dut, gidoilari talde on batez lan egiten dudalako, eta David Desola gidoilariari munduko pertsonarik boteretsuenak hiltzeko gaitasuna zuen birusa existitu zitekeela okurratu zitzaion. Nik denbora neraman alderantzizko migrazio prozesu bati buruzko istorio bati bueltak ematen, iparraldean bizi den pertsona pribilegiatu baten ikuspuntik kontatua izango zena, hau da, egoera normal batean jazarria

edo diskriminatua izango ez zena. Ideia bi horiek batu, eta Pedro Riverogaz elkartu ginen; Sam Steiner ingelesak azken orraztua eman zion. Orduan, 2019an gidoia idazteari ekin genion, eta, hain zuzen ere, gidoiaren lehenengo tratamendua konfinatu gintuzten egunean erregistratu genuen. Idazten joan ahala, errealtatean bizi-tzen joan gara, eta horrek asko zaildu zuen idazketa prozesua. Pelikulak itzuli asko eman du. Idazketa prozesu konplikatu izan du; alde batetik, geruza asko batzen duelako, eta, bestetik, gaur egungo gerra kultura-

lean oso delikatuak diren gaiak jorratzen dituelako, eta horrek ere baldintzatzen du zelan funtzionatuko duen. Bestalde, finantziarioa ere oso konplikatu zen, tamaina handiko proiektua den neurrian. Ekoizpen aldetik ere erronka bat izan da. Horrelako bidaia batek funtzionatzeko, ondo filmatu behar da, eta, horretarako, diru asko behar da. Ez da erraza hain-

"ASPIRAZIO HANDIAGO DUZU AURREKONTU HANDIAGOAGAZ"

GALDER GAZTELU-URRUTIA
ZINEGILEA



beste diru batzea horrelako pelikula arriskatu bat egiteko. Orain, mundu osoko takilaren erantzunaren menpe gaude. Pelikula independentea da, guk saltzen dugu herrialde eta merkatuetan. AEBak merkatu garrantzitsua dira, adibidez, eta negoziaketetan ari gara orain; Txinan ere zentsuraren erantzunaren zain gaude, zelan estreinatuko den jakiteko.

Independenteki eta Netflixen moduko plataforma boteretsu batez lan egin duzu denbora tarte laburrean. Zelan orekatzen da hori?

Egunduko buruko minekin. Prozesu biak izan dira gogorak, bakoitza bere berezitasunekin, baina hemen gaude. Biekin oso harro nago, eta asko gustatu zaizkit, baina gogorra izan da. *Rich Flu*-tik *El hoyo 2*-ko filmaziora hiru hilabeteko tartea baino ez nuen, eta, beraz, *El hoyo*-ren bigarrena aurretik prestatzen joan behar nintzen; horrela, taldea beharrean hasi zitekeen, lana aurreratzeke. Gero, bataren muntaiak bestearen filmatzeagaz bat egin zuen, baina lantalde ona dudanez, konpondu gara.

'El hoyo' filmak sekulako arrakasta izan zuen. Igarri duzu presiorik ondorengo lanetan?

El hoyo filmak nazioarte mailako arrakasta izugarria izan zuen; beraz, horren ondoren, kakaztu baino ezin da egin (barrez). Ikusiko dugu epe luze zelan funtzionatzen duten pelikula bi hauek. Dena dela, oso lan konplexuak dira eta

ezin dira baloratu estreinalditik aste bira. Eztabaida kulturean bete-betea sartzen dira eta horrek debatea sortzen du. Ikusiko dugu zelan irteten diren.

'Rich Flu'-ra itzulita, puri-purian dauden gai bi jorratzen dituzue. Gaur egun, mezu atzerakoiek sekulako bozgorailua dute sare sozialen bitartez. Zelako garrantzia du bestelako eztabaidak planteatzea artearen bitartez?

Guk paradoxa sozialak atsegin ditugu eta gure gai garrantzitsu biak aberastasunaren banaketa eta pertsonen arteko hartu-emanak dira; zehatzago esateko, behar ez ditugula uste dugun pertsonekiko hartu-emanak. *Rich Flu* eta *El hoyo* filmek gai horiek

jorratzen dituzte. Aktualitateko gaiak dira, baina orain hoge urte eginez gero ere hala litzateke; berdin bost urte barru. Hain zuzen ere, uste genuen zailtasun eta atzerapenengaitik berandu ibiliko ginela, eta, hala ere, badirudi gurata edo kalkulatu egindako zeozer izan dela. *El hoyo* filmagaz ere antzeko zeozer pasatu zen; momentu egokian kaleratu genuela esan ziguten. Baina aretoetan estreinatu genuenean ez zuen arrakasta handiegirik izan. Ondoren, Netflix bidez eman zenean, bai. Beti da momentu ona aberastasunaren banaketari buruz berba egiteko. Guk hausnarketa bat proposatzen dugu, ez dugu erantzunik eman gura; debatea sustatu gura dugu.

Pelikula entretenigarriak egin gura ditugu, ni ez naiz zinera pelikula aspergarriak ikustera joaten. Mezu sakonak edo gaurkotasan dutenak atsegin ditugu, baina mezua bidaltzea baino gehiago, mezuaz berba egitea da gura duguna. **Presio gehiago igarriko zenuen, baina aurrekontu handiagoa izatea ere bai?**

Hori betikoa da. Zenbat eta gehiago eduki, orduan eta gehiago gura duzu, eta horrela beti zaude itota. Langa norberak ipintzen du gero. Lehen pozik geunden aurrekontu txikiagoekin, eta orain aurrekontu handiagoagaz aspirazio handiagoa dugu. Baina beti gaude borroka berdinez, diru faltagaz.

"Burua askatzeak pertsona askatzen laguntzen du"

MARRAZKILARITZA Iurretako Oreka tabernan Iñaki Izagirre 'Paste'-ren oleo lanak daude ikusgai; Jon Irazabal 'Kata' historialariak hasi zuen ekimenari jarraipena eman gura diote antolatzaileek; martxora bitartean egongo da 'Paste'-ren erakusketa

A. M. IURRETA

Iñaki Izagirre 'Paste'-ren lan aukeraketa bat ikusgai dago Iurretako Oreka tabernan. Olio-gaz eginiko hamar lanek osatzen dute erakusketa, Izagirreren lehenengoa bakarka. "Aurretik erakusketa kolektibo batzuetan parte hartu dut, baina hau da nire lehenengoa. Orain artean nahiko ezkutuan izan dut margozten dudala; jendeak jakitea gura dut, baina, aldi berean, beldurra ere ematen dit", esan du Izagirrek.

Orekan bertako artisten lanekin erakusketak egiteko ideia Jon Irazabal 'Kata' zenarena izan zen. Erakusketegaz jarraitzea Yomara Cresporen eta Patricia Laisekaren ekimena izan da. "Kata'-k ipini zuen martxan, eta Yomarak eta biok jarraitzea erabaki dugu; eskaintza kulturala osatzen du, jendeak gustuko ditu horrelako erakusketak, eta artistei ere aukera ematen die euren jarduna eta lanak ezagutarazteko", azaldu du Laisekak.



Iñaki Izagirre Bastero 'Paste'.

Izagirrek "betidanik" marraztu izan du; hala ere, 2000. urte inguruan hasi zen zaletasuna "serioago" hartzen. "80ko eta 90eko hamarkadetan nire lana kalean egoten zen; hormetan eskegita egoten ziren pankar-

ta erraldoiak egiten nituen; 2000. urtean hasi nintzen serioago hartzen, gaiari buruz irakurtzen eta museoetara joaten. Estudio 2 akademiako Mikel Berrojalbizek asko lagundu dit", argitu du.



Kai Nakai. JULEN DE LA SERNA

Zornotza MusikagazFest jaialdiaren agertoki izango da

MUSIKA Zapatuan, musikari gazteen lana sustatzeko jaialdia egingo dute Zornotzan; 13:00etan hasiko da

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Kai Nakaik, Zilibito Records-ek, Albina Stardust-ek eta Eztrandap zornotzarrek parte hartuko dute, besteak beste, MusikagazFest jaialdian. "Jaialdia euskal musikari gazteen sorkuntza lana babesteko eta sustatzeko helburu-gaz jaio zen", azaldu du Musika Bulegoko Ruth Manzanok. "Jaialdi honeguz, musikari gazteei profesionalizatzerara bidean lagundu gura diegu", gaineratu du. Gerediaga elkarteak Beñat Gaztelurrutiak ere euskal artisten lanak ikusgai egitearen garrantzia azpimarratu du: "Gogoeta egin

behar dugu zer, zergaitik eta norentzat programatzen den. Kultura ez da aisialdia bakarrik". Bestalde, Iratxe Aguilera 'Kai Nakai'-k nabarmendu gura izan du "aukera polita" dela talde berriak ezagutarazteko: "Talde hasiberriek ez dute bide erraza izaten, eta hau aukera polita da. Doan da, gainera". Kontzertuak 13:00etan hasiko dira eta zenbait gunetan egingo dituzte: Zelaieta-kontzertu gelan, Amorebieta IV frontoian eta Euskal Herria plazan, esaterako. 14:30etik 16:00etara, pintxo pote berezia eskainiko dute Urtza tabernan.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Distopia distopikoa

Jarri arreta testu honetan. Ez da ingurua existitzen, ez da paperaren edo mugikorraren alboan egon daitezkeen ezer existitzen. Orain, har ezazu minutu bat eta hasi imajinatzen egoerarik distopikoena. Ados. Zer imajinatu duzu? Niri betiko pelikulak etorri zaizkit burura: Hirugarren Mundu Gerra, bomba atomikoak, jendea etengabe hiltzen, eta munduaren apokalipsiaren erdian, gu, ezer egin ezinda, atzera bueltarik barik.

Delako 'blue monday' edo astelehen urdina igaro dugu asteon. Ez dut sinisten halako fenomenoetan, baina nahiko deigarria da, termino hori AEBetako lurretatik etorrita, munduaren ahotan dabilen pertsonaia horrek AEBetako presidente kargua egun berean hartu izana. Astelehenean fenomenoan sinisten hasi nintzen. 'Trump'. Voldemort esateari baino errespetu handiagoa diot Trump esateari. Ukiezina bihurtu dela dirudi, eta bere asmoak, haluzinogeno bat hartu ondo-

ren aipatu dituela badirudi ere, egia bihurtu daitezkeen kezka erraztasunez sortzen du.

Ez dio ezer egingo Euskal Herriari, ez zuzenki behintzat, baina AEBetan batutako irudiak (Elon Musk agur nazia egiten eta politika estatubatuarra Trump, Musk eta konpainia zilegitzen) Espainiako Estatura eta estatuko politikako zein hedabideetako jendearekin paralelismoak egitera gakartza. Motos, Ana Rosa, Ferreras, Josu Jon Imaz, De Miguel... kinkan jarri izan ditu iritzi publikoak. Baina ai, futbolaren, La Revueltaren

**"EGUNEROKO PLAZER
ETA GOGOBEETZE
TXIKIEKIN GURE ANIMOA
ALTXATZEN DUGU"**

edota "herri txiki baten sortu nintzen" abesturik hasten den abestiaren gozamenarekin barrena lasai eta garbi dugu. Barre batzuk egin ditzakezu La 1 ikusten, Altuna partidak galtzen ikusi ETB1en, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa ETB4n, eta gainera domekan Izaki Gardenak ikustera joan zinen Amaraun Arte Fabrikara. Ez zaude hain txarto, ala?

Eguneroko plazer eta gogobetetze txikiekin gure animoa altxatzen dugu. Eta ez gara horren errudun sentitu behar. Baina, hain zuzen, hasieran imajinatu duzun distopia baino distopikoagoa ez al da, zerbait egiten ari garela sinistea, eta indar handia eta denbora asko horretan inbertitu ondoren egoera gutxi asko denaz konturatzea? Eta ez gara geldituko, herri txiki honetan sortu ginenok badakigu zer den pauso ñimiñoak ematea. Baina aurrerazkoak izan daitezela eskatzen diot urte berriari. Besterik ez.

Joseba Derteano DURANGO

Xabier Arroitauregi harrobia motor duen saskibaloia klub bateko adierazlerik onena da. Zaletasuna klubeko jokalaririk izandako gurasoengandik jaso zuen, umetatik Tabirakoren iturritik edan du eta talde boteretsuagoetara joateko eskaintzei uko egin die. Ez da damutzen, Tabirakok saskibaloia bilatzen duen guztia eskaintzen dio eta. Gainera, urte gozoak bizitzen dabil. Azken lau urteetan, taldeak birritan lortu du Espainiako Hirugarren FEB mailara igotzea. Aurten maila horretantxe dabil. Mailari eustea oso gax gax dute, hamahiru partidutik bakarira irabazita.

Hirugarren FEB mailan aritzea sari bat da harrobia oinarri duen klubarentzat, baina porrotekin kostatzen da egiten da gozatzea?

Esango nuke gozatzen gabiltzala. Jakina, gehiago gozatuko genuke partiduak irabazita, baina ez gabiltza txarto pasatzen. Zarautzen kontrako partidua kenduta, beste denetan ondo lehiatu gara eta ez dugu askogaitik galdu. Lehiakor sentitzen gara eta edozein partidu irabazteko kapaz garela uste dut.

Zerk huts egin du orain arte?

Horrelako kategorietan, bost minutuko itzalaldiak ordaindu egiten dira: edo ez dugula ondo defendatu edo ez diogula saskiratze erritmoari eutsi. Konturatu orduko aurkariek abantaila hartzen dute. Horixe gertatu zaigu partidu askotan.

Zeintzuk dira liga amaitu arteko helburuak?

Badakigu mailari eustea oso gax gax dela. Bigarren itzulian partidu asko irabazi beharko genituzke, eta lehenengo itzulian bakarira irabazi dugu. Partidurik partidu ondo lehiatzea izango da helburua, eta, irabazten badugu, ba hobeto!

Denbora gutxian birritan igo zarete Hirugarren FEB mailara. Zelan esplikatzeko da arrakasta hori?

Hainbat faktorek bat egin dute: esango nuke. Esaterako, belaunaldi desberdinetako jokalaririk on asko irten dira azken urteetan. Talde gaztea gara. Ni taldeko bigarren jokalaririk beterranoena naiz, 28 urteaz. Aurten juniorretatik talde nagusirako salto eman duten lau jokalaririk ditugu. 19 urte dituzte oraindino eta ibilbide oso aurretik. Taldeak itxura ona du eta urteetako taldea dugula uste dut.

"Lagunekin jokatzeko ez du preziorik. Etxea dut Tabirako"

XABIER ARROITAJAUREGI ELGUEA SASKIBALOI JOKALARIA (1997, DURANGO)

Tabirako Baqué gizonen taldea garai gozoa bizitzen dabil azken urteetan Xabi Arroitauregi lako jokalaririk erabakigarrienetarikoa da



Xabi Arroitauregi, astelehenean, Landako Kiroldegiko entrenamenduan.

laz Hirugarren FEB mailako MVPa [jokalaririk balioetsuena] izan zinen jardunaldi batean. 4/5 hirukoetan, 8/13 biko jaurtiketetan, 10/10 jaurtiketa libreetan, bost errebote eta lau asistentzia. Guztira, 46ko balorazioa. Zure ibilbideko partidurik onena izan zen?

Seguruenik bai, nire ibilbideko onena. Horrelako partiduak bost urterik behin irtetzen dira, asko jota. Egun horretan dena ondo irten zitzaidan: jaurtiketak, defentsa... Hala ere, partiduak zapore gazi-gozoa utzi zidan, galdu egin genuelako. Partidu hori irabazi bagenu, mailari eusteko pauso inportantea eman genuen.

Lorpen pertsonal gehiago ere badituzu: Euskadiko Lehen Nazional mailako jokalaririk onenaren eta Bizkaiko jokalaririk onenaren sariak. Lorpen guztietatik zeinek egiten dizu ilusiorik handiena?

Denek egiten didate ilusioa, ez nuke bat bestearen gainetik nabarmenduko. Jokalaririk onenarena denboraldi oso bati egindako errekonozimendua da eta poza ematen du. MVParenak ere ilusio handia egin zidan, duen hedaturagaitik.

"EZ NAIZ JOKALARIRIK ERABAKIGARRIENA SENTITZEN; GURA NUKE TALDEKIDEEN KONSTANTZIA IZAN"

Zelan daramazu taldeko jokalaririk erabakigarriena izatearen zigilua?

Ez naiz taldeko jokalaririk erabakigarriena sentitzen. Badakit partidu batzuetan ni izaten naitela punturik gehien sartzen duena, baina taldean ni baino askoz ere konstanteagoak diren jokalaririk daudela uste dut, bai erasoan bai defentsan. Hau da, partidu on bat dudanean alderik handiena markatu dezakeen jokalaria izan naiteke, baina beste batzuetan... hobe aukian geratu izan banintz! Horrelako partiduren bat ere gogoratzen dut. Gura nuke taldekide batzuen konstantzia neuretzat. Taldearen errendimendurako jokalaririk garrantzitsuak dira.

Izan duzu eskaintzarik talde indartsuagoetara joateko? Horrela bada, zergaitik erabaki duzu Tabirako geratzea?

Bai, eskaintzak izan ditut, baina ez nik bakarrik. Maila galdu dugunetan, taldeko hiru-lau jokalaririk horrelako eskaintzak izan ditugu, baina nahiago izan dugu etxeko taldean elkarrekin jokatzeko jarraitzea. Gure artean dugun konfiantzagaz erosoago sentitzen gara kantxan. Lagunekin jokatzeko ez du preziorik. Taldekide askoz 16 urtetatik batera nabil. Etxea dut Tabirako. Azkenean, partiduak, entrenamenduak eta gainerakoak kontuan hartuta, familiako jende asko baino gehiago ikusten ditut! (barrez).

28 urte dituzu. Zeure burua urte askoan ikusten duzu saskibaloian?

Ez dakit seguru. 28 urte egin ditut oraintsu eta beste pare bat denboralditan jarraituko dudala esango nuke. Oraingoan, behintzat, 30 urtera arte jarraitzea da buruan darabilen epea. Baina, tira, momentua heltzen ez dakit zer erabaki hartuko dudana. Unea hurreratu ahala joango naiz pentsatzen.

30 urteaz fisikoki sasoi betean egongo zara oraindino.

Ez pentsa, fisikoki ere urteak igartzen ditut dagoeneko!

Badago erretiratu aurretik Tabirakogaz lortu gura zenukeen lorpenik?

Aurten seguruenik Euskadiko Lehen Nazionalera jaitsiko garenez, desio hauxe dut: datorren urtean berriro mailaz igotzea, eta, posible bada, kategoriatik horri eustea, urtero gora eta behera ez ibiltzeko igogailu batean lez.

Nazioarteko txapelkunak Zornotzan, Boxeo Egunean

BOXEOA Europako txapelketa irabazitako Oier Ibarretxe galdakoztarra eta WAKO erakundeko munduko txapelkun izandako Enrique Kakulov valentziarra boxeolarien parte hartuko dute zapatuan Ixerbekoa kiroldegian egingo den boxeo jaialdian

J.Derteano ZORNOTZA

Zornotza Royal Boxing Team eta Lions Fight klubek hainbat borrokaldi izango duen Boxeo Eguna antolatu dute zapatarako. Zornotzako Ixerbekoa kiroldegian izango da, 19:00etan hasita.

Guztira, hamabi borrokaldi izango dira. Tartean, nazioarte mailan lorpen garrantzitsuak lorturiko boxeolari bi daude: Oier Ibarretxe eta Enrique Kakulov. Ibarretxe galdakoztarrak kontuan hartzeko moduko palmaresa du 21 urteaz. 2023an Europako Boxeo Txapelketa irabazi zuen 22 urtez azpiko mailan, 63,5 kilora arteko pisuan, eta iaz Parisko Joko Olimpikoe-tan parte hartu zuen. Zornotzako hitzorduan bere palmaresari beste garaipen bat gehitzen ahaleginduko da, Erick da Silva boxeolariaren aurka.

Enrique Kakulov valentziarra ere ez da edonor. WAKO erakundeko munduko txapelkun izanikoa da, eta boxeoan hainbat



Oier Ibarretxe, Europako txapelketa irabazi zuen borrokaldian. @OIBA.BOX

bider irabazi du Espainiako Txapelketa 63 kilora arteko pisuan. Kakulov Unai Aizpun nafarraren kontra borrokatuko da Zornotzan.

Zornotzako zortzi boxeolarien borrokaldiak ikusteko au-

kera ere izango da zapatuan. Horrez gainera, emakumeen boxeoak azken urteetan izandako hazkundearen erakusgarri, Natalia Ruiz eta Rakel Casas boxeolarien arteko borrokaldira ere antolatu dute.

Anbotopeko-Zalduak derbia jokatuko dute Durangon

SASKIBALOIA Durangarrek sei garaipen daramatzate segidan. Zaldibartarrek behetik irten gura dute

J.D. DURANGO

Bizkaiko Lehen Erregionalean dabilzan Anbotopeko eta Alkizabal Zaldua taldeek derbia jokatuko dute zapatuan, 16:00etan, Durangoko Tabira kiroldegian. Durangoko taldeak sei garaipen daramatza segidan; hain zuzen ere, iazko azaroan Matienako Zezenak taldearen kontrako derbia irabazi zuenetik honako guztiak irabazi ditu. Une hone-tan, hirugarren postuan dago sailkapenean. Alkizabal Zalduak taldeak, ostera, beheko postuetatik urrundu gura du derbia irabazi eta denboraldiko seigarren garaipena eskuratuta.



Anbotopeko-Matiena derbia. L.ITURRIOZ

Goreti Barrutieta errugbilari World Seriesa lehiatzen dabil

ERRUGBIA DRTko errugbilariak estreinaldia du Espainiako errugbi selekzioko nagusiekin



Goreti Barrutieta. DRT

J.D. DURANGO

Durango Rugby Taldeko Goreti Barrutieta Espainiako errugbi selekzioko talde nagusiagaz lehiatzeko hautatuen artean dago, bere ibilbidean lehenengoz. Egunotan Australiako Perth hirian da, Errugbi 7ko World Series txapelketako hirugarren ekitaldian parte hartzeko.

17 urteko durangarra, Uri Barrutieta DRTko jokalaria ohiaren ahizpa gaztea, oso maila ona erakutsitako jokalaria da Espainiako beheko kategorietan. Iazko uztailean Europako txapelkunorde geratu zen 18 urtez azpiko taldeagaz.



JOKALDIA

IÑAKI IZA ZARAZUA PILOTARI OHIA

Jeseus, Albitu!

Azken tantoa egin orduko erabaki nuen berari buruz idatziko nuela. Baziren nahikoa motibo beste batzuei buruz ere hitz egiteko, baina berak partidu ia perfektua jokatuta irabazi berri zuen. Jardunaldi berean beste batzuek ere partidu ia borobila egin zuten, baina bera aspaldian ikusi ez dugun mailan jokatzen ari da azken asteotan. Egia da badela besteren bat ere txapelketan bere jokorik onena berreskuratu duena, baina berari kariño berezia diot. Bera da-eta.

Geure lagunartean sarritan erabiltzen dugu "Jeseus, Albitu!" esapidea. Hala ere, joan den igandera arte denbora dezente neraman originala entzun gabe. 20-15ean Euzkitzek "Jeseus!" batekin erantzun zion Jon Anderren pilotakada bati. Poza eman zidan. Izan ere, jatorrizkoak zirrarra handiagoa eragin ohi du imitazioak baino. Eta jatorrizkoa, geuretzat behintzat, Xabierrena eta Jon Anderrena da.

Ataundarraren figura ez da nolana hikoia. Uztailean 15 urte beteko ditu profesionaletan. Horietatik 13 lehen mailan. Eta, gainera, gehien-gehienak enpresako erreferentziatzko atzelari lanetan pasatu ditu. Hala ere, inoiz ez diogu merezi duen besteko garrantzia emango, ez da-eta karismadun pertsona. Are gehiago, odol gu-

"20-15EAN EUZKITZEK 'JESEUS!' BATEKIN ERANTZUN ZION JON ANDERREN PILOTAKADA BATI. POZA EMAN ZIDAN"

txikoa dela ere entzun izan dut inoiz. Gutxi transmititzen duela. Baina odolik gabe ezinezkoa da Jon Anderren ibilbidea egitea. Bide batez, onar dezadan, odolgabeak atsegin ohi ditudala. Protesta gutxitan, baina, behar denean, neurrizkoak egiten dituztenak. Elkarrizketetan natural eta xume hitz egiten dutenak, tonu neutro eta gatzgabean. Inoiz, etsipenak eraginda, pilota harrika jaurti eta, berehala, lotsazko keinu batez burua makurtzen dutenak. Gutxien transmititzen duten horiek transmititzen didatela niri gehien, alegia. Baita greba batean lehen lerroko bigarren planoan kokatzen direnak ere.

Txapelik garrantzitsuena ez delako buruan jantzen, pilotazale gehienok pozten gara, neurri batean, Albituren arrakastarekin, eta sufritu egiten dugu haren porrota. Bera izate hutsagatik. Beti apal. Beti jator. Beti eredu. Beti Albitu.

KOMIKI TIRA UNAI GAZTELUMENDI

ME
KA

GUARDIAKO BOTIKAK

URTARRILAK 24, BARIKUA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

URTARRILAK 25, ZAPATUA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

URTARRILAK 26, DOMEKA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

URTARRILAK 27, ASTELEHENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

URTARRILAK 28, MARTITZENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

URTARRILAK 29, EGUAZTENA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

URTARRILAK 30, EGUENA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

**Laida Etxebarria**

Urtarrilaren 24an, 8 urte. Zorionak, maitia! 8 urte jada! Bizipoz horrekin jarrai dezazula espero dogu. Besarkada handi bat familia osoaren partez. Maite zaitugu!

**Uxue Segurola**

Urtarrilaren 25ean, 10 urte. Zorionak, Uxue! 10. buelta emon deusazu eguzkiari, eta gu zure ondoan zurekin disfrutatzen. Neska handia eta zoragarria zara. Asko maite zaitugu!

**Beñat**

Urtarrilaren 27an, 10 urte. Urtarrilaren 27an Beñatek 10 urte egiten ditu. Zaldibarko familiak musu erraldoi bat bidaltzen diogu. Ondo pasa, mutil handi! Maite zaitugu eta gora Alaves.



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Irati eta Intza (1006.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak


Etorri zaituz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

Zapatua, 25



Domeka, 26



Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Westrock
Nervión

Andramari Zornotzako ikastola: urrun iristeko, gertu

Gertu gaude Andramari ikastolan, hurbil eta prest. Hezkuntza komunitate aktiboa da ikastolako, parte hartzailea. Euskal curriculumean oinarritutako eta pertsonen garapenean ardatzuta hezkuntza ereduak gidatzen du ikastolaren jarduna eta komunitatea proiektu horren parte egin nahi du. Herritik sortutako proiektua da ikastolarena, eta herriarentzat ari da lanean, eredu kooperatiboa garatuz, bai antolaketan eta baita lantzen duen balio sisteman ere.

Profesional talde esperientziadunak dihardu Andramari Zornotzako ikastolan. Haur eta gazteak beren garapen eta ibilbidearen protagonista izanik, irakasleak prozesu horretan bidelagun dira ikas-etapa guztietan, ikasle bakoitzak behar dituen baliabideak eskainiz. Irakasleek pedagogia aktiboak erabiltzen dituzte, pertsonaren garapen integrala, osoa eta orekatua ahalbidetzeko. Ikasleak ikastolan egiten duen ibilbide osoan zehar laguntza departamentuaren eta bizikidetzaren proiektu sendo baten babesean aritu ahal izango du.

Pertsonak etorkizunerako prestatzen

Ikasleak etorkizunerako prestatzea da Andramari Zornotzako ikastolaren jardunaren arrazoia.



Euskal Herriko ikastolek sortutako hezkuntza markoaren baitan, barne sendotasuna duten pertso-

na euskaldunak, eraldatzaileak, erabakitzaile-ekintzaileak eta kooperatiboak heztea dugu ipar.

Ikasturte honetan abiatutako Jardunaldi Pedagogikoetan, ikastolako familia eta profesionalak zein interesa izan duten herritarrek bereizgarri horietan sakontzen hasteko aukera izan dute adituen hitzaldien bidez. Jardunaldi Pedagogikoen lehen edizioan Amaia Ayerra psikopedagogo eta Ikastolen Elkarteko kideak pertsonen garapenean emozioen lanketak duen garrantzia izan zituen aztergai bere hitzaldian. Lanketa horrek ikastolen hezkuntza proiektuetan izan beharreko norabidearen gainera hausnarketa egin zuen Ayerrak. Jardunaldien bigarren egunean Kike Amo-

narriz soziolinguistak ikastolak euskaldun kontziente, konpetente eta koherenteak sortzeko duen eginkizuna izan zuen go-goetagai. Hezkuntza arloan ditugun erronkei buruzko jardunaldiek hurrengo urteetan ere jarraipena izango dute.

Otik 18 urtera, hezkuntza proiektu integrala

Metodologia berritzaileak aplikatzen ditugu ikastolan, Haur Hezkuntzatik hasita. Ikasle bakoitzak berezkoak dituen gaitasunak garatzeko testuinguru aproposa eskaintzea da gure proiektuaren oinarria. Txikien artean esperimentazioaren bidez ikasleen jakin-mina sustatzen dugu. Ondorengo etapetan ikasleek ikasitakoa egoera errealean aplikatzeko gaitasuna eskuratzen dute, bakkirik nahiz talde lanean. Etengabeko berrikuntzaren bidez behar eta erronka berrietara egokitzen ari da ikastola.

Sukalde propioa duen jantoki zerbitzua, zaintza eta garraio zerbitzuak, eskolaz kanpoko ekintzak eta urtean zehar hainbat ekimen antolatzen ditu Andramari ikastolak.

Ezagutu ikastola

Hurrengo ikasturterako matrikulazio epea zabalduko da datozen asteotan. 0 eta 1 urteko haurrentzat urte osoan dago matrikula egiteko aukera. Bi urtetik aurrerako ikasleentzat, berriz, otsailaren 3tik 14ra dago hurrengo ikasturterako aurrematrikulazio epea zabalik.

Ikastola ezagutu nahi duten familiek bisita pertsonalizatuak egin ditzakete. Ikastolara telefonoz deituz edo webgunearen bidez eman daiteke izena bisita pertsonalizatua egiteko.





URRUN IRISTEKO, GERTU.

Zatuz eta ezagutu
Andramari Zornotzako ikastola

- Otik 18 urtera arte.
- Bisita pertsonalizatuak.
- 2025/26 matrikulazioa: otsailaren 3tik 14ra.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

Larrea auzoa z/g 48340 Zornotza.
94 673 29 50 - zornotza@ikastola.eus
www.andramarizornotzakoikastola.eus



LAU-HORTZA

MARKEL ONAINDIA
TXABARRI

Aterik zabaltzen ez duten giltzak

Zenbaterako izango den ziurtasun faltarekin, eta bueltan topatuko dutena zer den ondo jakin barik, Gazan bizi diren palestinarrek etxera bueltatzen hasi dira egunotan, su-etenaren iragarpenaren ostean. Hesean atara zirenean presaka hartutako gauzak eramango dituzte poltsa edo maletetan, eta etxeko giltzak poltsikoan. Akaso, bizilekura ailegatzean, zenbaitek euren etxea zutunik ikusteko zoria izango dute, sukaldean sartu eta paretan eskegitako egutegiak 2023ko urria markatzen duelarik; baina, hona heldu zaizkigun irudiei erreparatuta, destinu horrek zaila dirudi gazatar asko eta askorentzat. Giltzak eskuan harturik, bonbek eragindako hondakinen artera begiratu eta etxeko aterik ez, hormarik ez, sabairik ez, oherik ez, familian ateratako argazkirik ez, ingurukoekin tea eta kafea hartzeko kizararik ez, umeez ametsak koloretatzeko koadernorik ez. Horren orde, hutsune handi bat besterik ez, sionisten genozidioaren erruz galduriko senide eta lagunuen absentsia. Duela urte batzuk ANBOTO Orako izandako solasaldian, Anis Hawari erbesteratu palestinarrek kontatu zidan 1948ko Nakba edo ihesaldian bere familiak ere ospa egin behar izan zuela Palestinako Haifa hiritik, israeldarren okupazioaren eraginez. Eta, oraindik ere, zazpi hamarkada geroago, euren etxeko giltzak kontserbatzen dituztela, eraikina hondaturik dagoela jakin arren. Aterik zabaltzen ez duten giltzak dira; agian, etorkizunean errealitate hobe bat irekitzeko esperantzarekin gordeak.

AKUILUA

"Oso zoriontsua izan nintzen Betizu Taldean"

SAIDA ROUANE NUÑEZ BETIZU TALDEKO KIDEA

Saida Rouane (Abadiño, 1991) abeslari hasi zen Betizu Taldean, 12 urte gaz. Musikagaz lotuta jarraitzen du oraindino ere, eta arropa diseinatzen du Le.Volv izenpean

A. Basauri ABADIÑO

Betizu Taldeak *BT 2025* kontzertu berezia grabatu du Primeran plataformarako, 20 urteren ondoren. Saida Rouanek sorpresagaz eta pozik hartu zuen propo-

samena. Ibizan bizi den arren, sarritxotan etortzen da Abadiño-ra familiarengana.

Zelan gogoratzen duzu Betizu Taldea? Zelako esperientzia izan zen zuretzat?



Nostalgiaz eta maitasun handiz gogoratzen dut garai hura. Oso gaztea nintzela hasi nintzen Show BT saioan, 12 urte baino ez nituela. Akademiako azken hiru hileetan, bertan egoteko zortea izan nuen; irabazleetarik bat izan nintzen eta Betizu Taldean sartzea lortu nuen. Taldekideak ezagutu nituen, eta kantu eta dantza eskolak hartzeko aukera izan nuen gero. Zer esan platoetako esperientziaz! Dena oso polita izan zen.

Zelan animatu zinen castingera?

Umetatik izan dut abesteko grina. Urtebetetzeko opari lez *Lluvia de Estrellas* saiora eramatea ere eskatu nuen behin. Baina ez zidaten jaramon handirik egin (barrez). Etxean inor ez zegoen egun batean, ETB1en ikusi nuen castinga egingo zutela akademiako azken lekuak betetzeko, eta deitu egin nuen, ezkutuan. Deia bueltatu zidatenean, castinga egitera joan behar genuela esan nion amari. Oso gaztetatik argi nuen musikak hunkitu egiten ninduela, artista izan gura nuela. Oholtzara bost urte gaz igo nintzen lehenengo.

Zenbat denbora egin zenuen Betizu Taldean?

Show BTko bost irabazleak aukeratu ondoren, kontzertuak ematen hasi ginen: Bilbon eta Donostian lehenengo. Udan kontzertu birak egiten genituen. Gainera, telesailak grabatu genituen, film bat ere bai, eta lau disko grabatu. 12 urtetik 16 urtera bitartean aritu nintzen Betizu Taldean.

Bizimodu nekoso nerabe batentzat.

Umezarotik nerabezarora bidean harrapatu ninduen, bai. Baina zoriontsua nintzen. Ez zitzaidan gogorra egin. Esperientzia hark ez zidan ezer kendu, eman baino. Askoz gehiago jarraitu ahal izango nuen, baina taldeak bere bidea bete zuela erabaki zuten. Eta bakoitzak gure bideari jarraitu genion. Ni moda munduan sartu nintzen. Miss Gipuzkoa lehiaketara aurkeztu nintzen eta lehenengo ohorezko dama aukeratu ninduten. Bost bat urte egin nituen modelogintzan.

Orain ibizan zaude. Musikagaz lotuta jarraitzen duzu?

Bai. Musika oso presente dago nire bizitzan. Esan behar dut Betizu Taldea desegin zenean musika utzi nuela. Ez dut abestu, orain lau urte berriro musikan hasi arte. Tristura apur batez bizi izan dut garai hori. Gaur egun nire musika sortzen dut, pertsonalagoa. Eta pozik nago. Bestalde, orain hiru urte Le.Volv arropa marka sortu nuen. Musika eta moda, biak uztartzen ditut.

"BOST URTEGAZ IGO NINTZEN ABESTERA OHOLTZA BATERA LEHENENGOZ"

Aurrematrikulazioa

Otsailaren 3tik 14ra

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
Hazi. hezi. hegan egin



Etor zaitez
gu ezagutzera!

landakoeskola.org · 944 280 174